

**KOOPERATIBAK.** Abenduaren 27ko dekretuak kooperatiben berezitasunak ditu kontuan

# Jaurlaritzak ordezkapen kontratua sortu du kooperatibetako kideentzat

Aurrez erretiratzeko diren hiru bazkideetik lau lanpostu sortzea bultzatu nahi da akordioarekin



DAVID AGUILAR / EFE  
Sabin Intxaurrea eta Joxerramon Bengoetxea, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburua eta sailburuordea.

Erredakzioa | DONOSTIA

«Lanpostuak sortzeko helburuarekin», atzo aurkeztu zuen Donostian Sabin Intxaurrea Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuak kooperatibetako bazkideentzat baliagarria izango den ordezkatzeko kontratuaren dekretua.

Ordezkapen kontratu berriak 1999ko ekainetik indarrean dauden ordezkapen kontratu orokorra egokitu egiten du kooperatibetako bazkideek dituzten berezitasunetara. Lan munduan sartzeko eragozpen gehien duten sektoreek –gazteek, luzarotan lanik gabe daudenek eta emakumeek– lana izatea bultzatu nahi da.

Ordezkapen kontratu orokorrak Gizarte Segurantzako kotizatzen duten langileak hartzen

ditu soilik kontuan, baina kooperatibako bazkideek Gizarte Aurreikuspenetako Erakundearen batean egin beharra dute erretiroa, Espainiako legediak hala ezarrita.

«Kooperatiba mugimenduak duen indarra kontuan hartuta», iaz MCC kooperatiba taldearekin akordio hitzartu zuen Jaurlaritzak eta abenduaren 27an dekretua onartu zuen.

Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak kooperatibako 60 urtetik gorako bazkideari, 65 urtetan erretiratu gero, jaso beharreko pentsioaren %90a bermatuko dio «bizitza amaitu arte», Joxerramon Bengoetxea sailburuordeak esan zuenez.

Kooperatibak lanpostuak sortzeko konpromisoa hartu behar du: irtengo diren hiru bazkideetatik, lau lanpostu sortu be-

harra, aurrez erretiratutako bazkideentzako 1,3 lan berri, alegia. Heren hori, lanaldi partzialekin beteko da, behar izanez gero.

Eusko Jaurlaritzak kooperatiba enpresei diru laguntzak eskainiko dizkie. Gutxienez 750.000 pezetakoa izango da eta «kontratatzeko den emakume bakoitzeko 1.250.000 pezeta», Bengoetxeak zehaztu zuenez.

Intxaurrearen arabera, dekretuak 1.000 bazkideri eragin diezake. Sartzen direnak, gainera, bazkide ere izango dira.

## PUNTU NAGUSIAK

### Kooperatibetako ordezkapen kontratua

Espainiako araudiaren arabera, kooperatibetako bazkideek Gizarte Segurantzako kotizatu ezin dutenez, Jaurlaritzak berezitasun hori kontuan hartzen duen ordezkapen kontratua sortu du.

### BAZKIDEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK.

Erretiratzeko falta zaizkien urteen arabera, diru kopuru jakin bat emango zaie: 1.950.000 pezeta, erretiratzeko 5 urte beharrez gero; 1.400.000 pezeta, 4 urte falta bazaizkio; 975.000, 3 urte falta bazaizkio, eta 600.000, 2 urte behar izanez gero.

### ENPRESAREN KONPROMISOA.

Kooperatibak aurrez erretiratutako 3 bazkideetik 4 lanpostu sortu behar du. Beraz, pertsona bakoitzeko, bazkide bat eta lanaldi partzialeko postu bat sortuko du.

### ENPRESARI LAGUNTZAK.

Gutxienez 750.000 pezeta; gazteak, luzarotan lanik gabe daudenak eta ezinduek, milioi bat pezeta, eta emakumeak, 1.250.000 pezeta.

**INDUSTRIAKO EKOIZPEN INDIZEA.** Hazkundera %5,7koa izan da 11 hilabetetan

## Euskal Autonomi Erkidegoko industriaren jarduera %3,2 hazi da azaroan

Erredakzioa | DONOSTIA

EAEko Industriako Ekoizpen Indizearen urte arteko hazkundera azaroan %3,2koa izan zen, eta iazko lehen hamaika hilabeteetako datuak kontuan hartuz, %5,7ko hazkundera izan zuen, Espainiakoak baino puntu bat gehiago.

Datuok Eustat Euskal Estatistika Erakundeak kaleratu zituen atzo. Eustaten aburuz, urtean bilakaera positiboa izan du indizeak.

Hala ere, bilakaera kontuan hartuz gero, urteko bigarren hiruhilekoan hazkunde handiena lortu zen, %8,2koa, eta geroztik, «hazkunde tasetan etenik gabeko geldotze bat nabari da», zioen estatistika erakundearen oharra.

Azaroan urte arteko hazkunde tasarik handiena ekipon-ondasunek lortu zuten (%4,8), gero bitarteko ondasunek (%4,6). Kontsumo ondasunek tasa apalagoa izan dute orohar (1,8).

## LAN ISTRIPUA

### Sindikatuak protesta egin dute Pasai San Pedron hildako arrantzaleagatik

Erredakzioa | DONOSTIA

ELA, LAB, ESK eta EILAS euskal sindikatuak igandean hildako arrantzale donostiarrengatik beren gaitzespena adierazi zuten Pasai San Pedron egindako elkarretaratzean.

Igandean *Monte Alen* itsasontzia Gran Soleko eremuan zela, Pedro S. S. arrantzalea ontzitik erori eta Atlantikoko uretara erori, eta bertan hil zen.

Pasai San Pedron 50 pertsona inguru bildu ziren atzo, eguerdiko hamabietan, lan istripuen aurka protesta egiteko. Hego Euskal Herriko heriotze tasa handia orotarazten zuen pankarta zihoran elkarretaratzearen aurreko aldean.

LAB sindikatuak adierazi zuen urtea hasi besterik egin ez denean bi pertsona hil direla Gipuzkoan lan istripuegatik. Eta iazko datua ere ekarri zuen gogora. Hain zuzen ere, Hego Euskal Herrian 154 behargin hil ziren lan istripuetan.

Istripuetan enpresariak duten ardura salatu zuten sindikatuak, «kasu askotan ez baita Lan Arriskuen Prebentzio legea ezartzen eta aplikatzen».

Egoera are larriagoa da arrantza munduan, «ez baita ezartzen legerik eta itsasoko langileek prebentzio arloan ez dute heziketarik». Eusko Jaurlaritzari kontrola eta lan baldintzen jarraipena egiteko eskatu zioten.

Hauek dira azaroan gehien hazi diren sektoreak: larru eta zapata industria (%40,8), kimika industria (%13,8), makina (%9,9) kautxu eta plastikoa (%6,8) eta materia elektrikoak (%5,4).

Urteko lehen hamaika hilabeteetan batez beteko indizetik gora sektore hauek ibili dira: kimika industria, materia elektrikoak eta plastikoa eta kautxuak, besteak beste.

Lurraldeka, aldeak daude EAE hiru herrialdeetan. Gipuzkoak 2000. urteko lehen hamaika hilabeteetan %8,2ko hazkundera izan du, Arabak %6,9koa eta Bizkaia %3koa. Urte gutxian hazkunde apalagoa izan du Bizkaia.

Donostiako enpresa batek ondoko lanpostuak bete behar ditu:

### AGENTE KOMERTZIALAK (70 erref.)

PUBLIZITATE SALMENTAN aritzeko DONOSTIA aldean eta BILBO aldean

**ESKAINITZEN DA:**

- Lan kontratua, Gizarte Segurantzarekin.
- Soldata finkoa + Komisioa.
- Bezero zerrenda.
- Formakuntza, enpresaren kontu.

**ESKATZEN DA:**

- EUSKARAZ JAKITEA EZINBESTEKO DA.
- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Komunikaziorako gaitasuna eta harremanetarako trebezia.
- Eskualdean bizitzea.
- Autoa izatea.

INTERESATUEK, KURRIKULUM ZEHATZA BIDALI ARGAZKI BERRI BATEKIN, URTARRILAREN 18a BAINO LEHEN, HELBIDE HONETARA: ]

1887 Posta-kutxatila / DONOSTIA  
EDO HONAKO TELEFONORA DEITU 943 300 222 (ELENA)